ADIERAZTEN DU

• Lehentxeago aipatu den ehiza esparruan ondoko hobekuntza eta inbertsioak egin nahi dituela aurten.

• Esparru honek bete egiten dituela Arabako ehiza esparruetako ehizagaiak zuzen kudeatzeko laguntza lerroa onartzen duen foru dekretuan ezarritako baldintza orokorrak.

Egin beharreko hobekuntzen edo inbertsioen laburpena
(Kontzeptuka)
A - ..........................................................................................
B - ..........................................................................................
C - ..........................................................................................
D - ..........................................................................................
Gutxi gorabeherako aurrekontu aurreikuspena
(Kontzeptuka)
A - ..........................................................................................
B - ..........................................................................................
C - ..........................................................................................
D - ..........................................................................................

ESKATZEN DU

Foru dekretuan adierazitako laguntzak eskuratzea, ezarritako ehunekoen arabera.

..........................., 2012ko .................................aren.............(a)
ESKATZAILEA (Sinadura irakurterraza)

EXPONE

• Que durante el presente año desea llevar a cabo las siguientes mejoras e inversiones en el coto de caza arriba reseñado.

• Que este acotado cumple la condiciones generales establecidas en el Decreto Foral por el que se aprueba la línea de ayudas destinada a la correcta gestión de las especies cinegéticas en los cotos de caza de Álava

Resumen de las mejoras o inversiones a realizar
(Por conceptos)
A - ..........................................................................................
B - ..........................................................................................
C - ..........................................................................................
D - ..........................................................................................
Previsión presupuestaria aproximada
(Por conceptos)
A - ..........................................................................................
B - ..........................................................................................
C - ..........................................................................................
D - ..........................................................................................

SOLICITA

Acogerse a las ayudas contempladas en el Decreto Foral de acuerdo a los porcentajes establecidos.

En .........................., a ........ de .................................... de 2012
EL SOLICITANTE (Firma legible)

*Foru Aginduak*

## INGURUMEN ETA HIRIGINTZA SAILA

**4878**

**400/2012 FORU AGINDUA, abuztuaren 10ekoa, behin betiko onartzen duena, baldintzekin, Arriolako (Asparrena) SAUR-1 sektoreko plan partzialaren aldaketa espedientea.**

I.- AURREKARIAK

Lehenengoa.- Uztailaren 21eko 13/2003 Foru Aginduaren bidez behin betiko onartu zen Arriolako SAUR-0 sektoreko plan partzialaren espedientea, Asparreneko udal planeamenduko arau subsidiarioetakoa, “Buztin de Arriola” SAUR-0 sektorearen jabe elkarteak sustatua eta Asparreneko Udalak izapidetua.

Bigarrena.- 2004an, Asparreneko udal planeamenduko arau subsidiarioak berrikusteko espedientea behin betiko onartutakoan, aldatu egin zen sektore horren izena. Harrezkero, Arriolako SAUR-1 da eta jardun eremu berean jarraitzen du.

Hirugarrena.- 2012ko ekainaren 13an ofizio bat (sarrera zk.: 8821) jaso zen Asparreneko Udalean, Arriolako SAUR-0 sektoreko (egungo SAUR-1) plan partzialaren aldaketa espedienteari buruzkoa, hala bazegokion, behin betiko onar zezaten.

Laugarrena.- Espedienteko agiriak aztertuta, izapideetarako funtsezkoak diren honako egitateak ondorioztatzen dira:

a) Alkatearen 2012ko urtarrilaren 26ko dekretu bidez, hasierako onarpena eman zitzaion plan partzialaren aldaketari, bai eta aldaketari hori hogei egun baliodunez jendaurrean jartzeko erabakia hartu ere. Horretarako, hari buruzko iragarkiak jarri ziren ALHAOn (2012ko otsailaren 6a, 15 zk.), “El Correo” egunkarian (2012ko urtarrilaren 31) eta udalaren iragarki taulan. Era berean, Asparreneko udal idazkariak adierazten duenez, aipatutako sektorean lurrak dituzten jabe guztiei jakinarazi zitzaien. Jakinarazpen horrekin batera 2012ko martxoaren 9an ALHAOn (29 zk.) argitaratutako hasierako onarpenari buruzko ebazpen osoa bidali zitzaien.

b) Hasierako onarpen horren berri eman zitzaion Arriolako Administrazio Batzarrari.

*Órdenes Forales*

## DEPARTAMENTO DE MEDIO AMBIENTE Y URBANISMO

**4878**

**ORDEN FORAL 400/2012, de 10 de agosto, de aprobación definitiva con condiciones del expediente de modificación del Plan Parcial del Sector SAUR-1 de Arriola, municipio de Aspárrena.**

I.- ANTECEDENTES

Primero.- Mediante Orden Foral 13/2003, de 21 de julio, fue aprobado definitivamente el expediente de Plan Parcial del Sector SAUR-0 de Arriola, de las Normas Subsidiarias de Planeamiento del municipio de Aspárrena, promovido por la Asociación de Propietarios del Sector SAUR-0 “Buztin de Arriola” y tramitado por el Ayuntamiento del citado municipio.

Segundo.- Tras la aprobación definitiva en 2004 del expediente de revisión de las Normas Subsidiarias de Planeamiento de Aspárrena, dicho sector cambió su denominación, pasando a ser el actual SAUR-1 de Arriola y manteniendo el mismo ámbito de actuación.

Tercero.- En fecha 13 de junio de 2012 y número de registro de entrada 8821 se recibió un oficio del Ayuntamiento de Aspárrena remitiendo el expediente de la modificación del Plan Parcial del Sector SAUR-0 (actual SAUR-1) en Arriola, con el fin de que le fuera concedida la aprobación definitiva si procediera.

Cuarto.- Del examen de los documentos que componen el expediente se desprenden los siguientes hechos fundamentales en su tramitación:

a) Por Decreto de Alcaldía de fecha 26 de enero de 2012, se acordó aprobar inicialmente la modificación del Plan Parcial y someterlo a información pública por el plazo de 20 días hábiles, haciéndose efectiva mediante la inserción de los respectivos anuncios en el BOTHA nº 15, de 6 de febrero de 2012 y en el periódico “El Correo” de 31 de enero de 2012, así como en el tablón de anuncios del Ayuntamiento. Se notificó personalmente a todos los propietarios de terrenos del referido Sector, según certifica el Secretario del Ayuntamiento de Aspárrena, incluyendo notificación mediante publicación íntegra de la Resolución de la aprobación inicial en el BOTHA nº 29, de 9 de marzo de 2012.

b) Dicha aprobación inicial fue notificada a la Junta Administrativa de Arriola.

c) Jendaurrean egon zen bitartean alegazioa bat aurkeztu zen. Alegazio hori onetsi egin zuen udalbatzak, 2012ko apirilaren 12ko osoko bilkuran hartutako erabaki bidez.

d) Ondoren, udalbatzak, 2012ko ekainaren 7ko ohiko osoko bilkuran, behin-behineko onarpena eman zion espedienteari, baldintzekin.

Bosgarrena.- Diputatu nagusiaren uztailaren 21eko 62/2011 Dekretuan xedatutakoarekin bat etorriz, behin betiko onarpena eman ala ez Ingurumen eta Hirigintza Saileko foru diputatuari dagokio.

II.- OINARRIAK

Lehenengoa.- Euskal Autonomia Erkidegoko Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legean ezarritakoaren arabera izapidetu da “Buztin de Arriola” SAUR-0 sektorearen konpentsazio batzordeak eskatuz sustatutako agiria.

Agiria aztertutakoan, egiaztatu egin da aplikagarri den hirigintza legediarekin bat etorriz aldatu beharreko alderdiak, oro har, bete direla. Hala ere, ezinbestekoa da ondoko alderdietan gauzatzen diren zenbait gabezia edo huts nabarmentzea.

Bigarrena.- Espediente honetan proposatutako aldaketaren helburua da sektoreko 21 zenbakiko bizitegitarako lurzati eraikigarrian (1 poligonoko 376 katastro lurzatia) diren arazoak konpontzea. Arazo horiek mugatu egiten dituzte hartan eraikitzeko aukerak, ondoko arrazoiengatik:

a) Sektorearen mugetan huts bat dago. Huts hori behin betiko zuinkatzean ikusi da eta behartu egiten du 21 lurzatiaren azalera 67,39 metro koadrotan txikiagotzera, urbanizazio berriak lurzoru urbanizaezinean dagoen lurzatiaren mendebaldetik doan bidea har ez dezan.

b) Lurzatia iparraldetik hegoaldera zeharkatzen duen ur bidea ez zen identifikatu ez plan partzialean ez konpentsazio eta urbanizazio proiektuetan; beraz, ez ziren aintzat hartu uberka eta eraikinen artean izan beharreko tarteak.

Hirugarrena.- Arriolako SAUR-0 (egungo SAUR-1) plan partzialaren aldaketak aldez aurretik onartutako agiriaren gaineko aldaketak planteatzen ditu:

a) Sektorearen mugak aldatzea, 21 lurzatiaren mendebaldean, bidearen benetako ibilbidera egokituz.

b) 21 lurzatiaren kalifikazioa aldatzea: bizitegitarako lurzoru izatetik, zona berde izateko, erabilera eta jabari publikoko espazio libre izatera igaro da.

c) Era berean, aldatu egiten da 1 poligonoko 378 katastro lurzatiko mendebaleko zonaren kalifikazioa, eta, zona berde izateko, erabilera eta jabari publikoko espazio libre izatetik bizitegitarako lurzoru izatera igaro da. Zona horren azalera 1.586,69 m2 izango da, hots, hasierako plan partzialean 21 lurzatiak zuen azalera berbera.

d) Aldatu egiten dira lekuz egun zona berdean dauden aparkaleku egokituak eta jabari eta erabilera publikoko espazio libre berrira eramaten dira.

e) Bizitegitarako lurzati berrirako behar diren hiri azpiegiturak definitzea.

f) Sektorearen mugak aldatzea, hego-ekialdean. Aldaketa hori Arabako Lurralde Auzitegiaren 2012ko apirilaren 12ko epaiaren ondorio da. Aldaketa horrek hala 1 poligonoko 408 eta 409 katastro lurzatien arteko mugari nola sektorearen beraren mugari eragiten die.

g) 55, 58 eta 59 lurzatien azalerak zuzentzea, haiek zeharkatzen dituen errekarengatik.

Laugarrena.- 21 lurzatiko kokapen zaharrean dagoen zona berde izateko erabilera publikoko espazio librea dela eta, ez da planeamendu erregelamenduaren 4. eranskinean adierazitako baldintza betetzen, hau da, eremu horretan, gutxienez, 30 metroko diametroa duen zirkunferentzia inskribatzeari dagokiona. Dena den, baldintza hori erraz bete liteke, planeamendu erregelamendua betetzeko, antolamendu xehatuan espazio libre mugakidearekin lotune bat islatuz eta zona berde jarraitua eta handiagoa eskainiz.

c) Dentro del plazo de exposición pública fue presentada una alegación que fue estimada por el Ayuntamiento, mediante acuerdo del Pleno de la Corporación de 12 de abril de 2012.

d) Con posterioridad el Ayuntamiento en sesión ordinaria del día 7 de junio de 2012, procedió a aprobar provisionalmente el expediente con condiciones.

Quinto.- De conformidad con lo dispuesto en el Decreto del Diputado General número 62/2011, de 21 de julio, la aprobación definitiva, si procediese, corresponde a la Diputada del Departamento de Medio Ambiente y Urbanismo.

II.- FUNDAMENTOS

Primero.- El documento, promovido a instancia de la Junta de Compensación del Sector SAUR-0 “Buztin de Arriola”, ha sido tramitado siguiendo el procedimiento establecido en la Ley 2/2006, de 30 de junio, de Suelo y Urbanismo del País Vasco.

Una vez analizado el documento se constata el cumplimiento, en líneas generales, de los aspectos a modificar de acuerdo con la legislación urbanística aplicable. Sin embargo, es necesario señalar la existencia de varias deficiencias o errores que se concretan en los siguientes apartados.

Segundo.- El objeto de la modificación propuesta en este expediente es solucionar la problemática existente en la parcela edificable residencial nº 21 del Sector (parcela catastral 376 del polígono 1), que limita las posibilidades de llevar a cabo la edificación en la misma por la concurrencia de las siguientes circunstancias:

a) La existencia de un error en la delimitación del Sector, detectado a la hora de replantear definitivamente el mismo, que obliga a reducir la superficie de la parcela 21 en 67,39 m2, con el fin de que la nueva urbanización no invada el camino que discurre al oeste de la parcela situado en suelo no urbanizable.

b) El curso de agua que atraviesa la parcela en dirección norte-sur no fue identificado ni en el Plan Parcial, ni en los Proyectos de Compensación y de Urbanización; por lo tanto, no se tuvieron en cuenta los retiros de edificación para respetar el cauce.

Tercero.- La modificación del Plan Parcial del SAUR-0 (actual SAUR-1) de Arriola plantea los siguientes cambios sobre el documento aprobado previamente:

a) Modificación de la delimitación del Sector en la zona oeste de la parcela 21, adaptándolo al trazado real del camino.

b) Cambio de la calificación de la parcela 21, que pasa de suelo residencial a espacio libre de uso y dominio público destinado a zona verde.

c) Recíprocamente, cambio de la calificación de la zona oeste de la parcela catastral 378 del polígono 1, que pasa de espacio libre de uso y dominio público destinado a zona verde a suelo residencial, con la misma superficie de 1.586,69 m2, que era la superficie con la que contaba la parcela 21 en el Plan Parcial inicial.

d) Traslado de las plazas de aparcamiento adaptadas, actualmente situadas en la zona verde, al nuevo espacio libre de dominio y uso público.

e) Definición de las acometidas de infraestructuras urbanas para la nueva parcela residencial.

f) Modificación de la delimitación del Sector en el lindero sureste, como consecuencia de la sentencia judicial de la Audiencia Provincial de Álava de fecha 12 de abril de 2012, que afecta tanto al límite entre las parcelas catastrales 408 y 409 del polígono 1, como al del propio Sector.

g) Corrección de las superficies de las parcelas 55, 58 y 59 a causa del arroyo que atraviesa las mismas.

Cuarto.- Respecto al espacio libre de uso público destinado a zona verde, situado en la antigua ubicación de la parcela 21, no se cumple con la condición indicada en el artículo 4 del Anexo al Reglamento de Planeamiento en cuanto que se pueda inscribir, en dicho ámbito, una circunferencia de 30 metros de diámetro mínimo. Sin embargo, esta condición puede subsanarse fácilmente, reflejando en la ordenación pormenorizada una conexión con el espacio libre adyacente, proporcionando una zona verde de continuidad y de mayores dimensiones, en cumplimiento del Reglamento de Planeamiento.

Halaber, hirigintza planeamendu erregelamenduaren 51. artikuluak xedatzen du ekipo areetara bide saretik sarbidea bermatzeko beharra dagoela. Errepideetan proiektatutako lerroko aparkalekuen kokapenak, ordea, ezinezko egiten du hezkuntza ekipoen lurzatira pasabiderik gaitzea. Ondorioz, gutxitu egiten da onartutako garapen planeamenduan zehaztutako aparkaleku kopurua. Dena den, bete egiten da erregelamendu horren 45.f artikuluan aparkaleku publikoetarako xedatutako gutxieneko kopurua.

Beraz, planeamendu erregelamenduaren eranskinean adierazitakoa kontuan harturik, oinezkoentzako behar beste pasabide egingo da, komunitate ekipamenduetara sartzeko. Irisgarritasun Legea garatzen duen 68/2000 Dekretuaren 11. eranskinaren 3.5 artikuluak xedatutakoa beteko dute pasabide horiek.

Bosgarrena.- Arrazoitu egingo da, agiriaren memorian, behin betiko antolamenduko aparkaleku kopurua. Era berean, 68/2000 Dekretuaren 11. eranskinaren 3.11 artikuluan xedatutakoak beteko dituzte aparkaleku egokituen neurriek.

Horregatik, eta dagozkidan eskumenez baliatuz, honakoa

XEDATU DUT

Lehena.- Behin betiko onartzea Arriolako (Asparrena) SAUR-1 sektorearen plan partzialaren aldaketa espedientea, ondoko baldintzekin:

1.- Planeamendu erregelamenduaren eranskinaren 4. artikuluan adierazitako baldintza ebaztea, proposatutako erabilera publikoko espazio librean, gutxienez, 30 metroko diametroa duen zirkunferentzia inskribatu ahal dadin.

2.- Ekipo areetara bide saretik sarbidea bermatzea; horretarako, argi eta garbi adieraziko dira planoetan oinezkoentzako pasabideak, planeamendu erregelamenduan eta Irisgarritasun Legea garatzen duen 68/2000 Dekretuan xedatutakoa betez.

3.- 68/2000 Dekretuaren II. eranskinean xedatutakoetara doitzea aparkalekuen neurriak.

4.- Antolamendu berriarekin bat etorriz, egokitzea eta osatzea hala agiri grafikoak nola agiri teknikoaren memoria, azalera taulari, aparkalekuei eta abarrei dagokienez.

Bigarrena.- Adierazitako baldintzak ez dira funtsezkoak. Beraz, haiek zuzendutakoan espedientea foru aldundiari igorriko zaio (testu bateratua osatuta), berriro jendaurrean jarri beharrik gabe, betearazi beharrekoa dela adieraz dezan, izapideak egin daitezen eta argitara dadin.

Hirugarrena.- Ebazpen hau ALHAOn argitaratzea.

Laugarrena.- Administrazio bidea agortzen duen ebazpen horren aurka administrazioarekiko auzi errekurtsoa aurkeztu daiteke Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzietarako Salan. Horretarako, bi hilabete izango dira, ebazpena jakinarazi edo argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2012ko abuztuaren 10a.– Ingurumen eta Hirigintza Saileko Foru Diputatua, MARTA RUIZ CERRILLO.

Asimismo, el artículo 51 del Reglamento de Planeamiento Urbanístico establece la necesidad de garantizar la accesibilidad a las áreas destinadas a equipamientos en relación con la red viaria. Sin embargo, la disposición de los aparcamientos en línea proyectados en los viales rodados, invalida cualquier posible vado de acceso a la parcela de equipamiento educativo. Como consecuencia, se disminuye el número de aparcamientos respecto del planeamiento de desarrollo aprobado que, en todo caso, deberá cumplir con la reserva mínima establecida en el artículo 45.f de dicho Reglamento para los aparcamientos públicos.

Por tanto, teniendo en cuenta lo indicado en el Anexo al Reglamento de Planeamiento, se dispondrán los pasos peatonales que sean necesarios para garantizar el acceso al equipamiento comunitario, ajustándose el diseño de dichos pasos a lo indicado en el artículo 3.5 del anejo 11 del Decreto 68/2000 que desarrolla la Ley de Accesibilidad.

Quinto.- Deberá justificarse el cumplimiento del número de plazas de aparcamiento en la ordenación definitiva en la memoria del Documento. Asimismo, las dimensiones de las plazas de aparcamiento adaptadas deberán cumplir lo establecido en el artículo 3.11 del anejo 11 del mencionado Decreto 68/2000.

En su virtud, haciendo uso de las facultades que me competen,

DISPONGO

Primero.- Aprobar definitivamente el expediente de modificación del Plan Parcial del Sector SAUR-1 en Arriola, municipio de Aspárrena, con las siguientes condiciones:

1.- Resolver la condición indicada en el artículo 4 del Anexo al Reglamento de Planeamiento, posibilitando que en el espacio libre de uso público propuesto se pueda inscribir una circunferencia de 30 m de diámetro como mínimo.

2.- Garantizar la accesibilidad a las áreas destinadas a equipamientos en relación con la red viaria, reflejando claramente en los planos los vados de acceso peatonal, en cumplimiento del Reglamento de Planeamiento y del Decreto 68/2000, que desarrolla la Ley de Accesibilidad.

3.- Ajustar las dimensiones de las plazas de aparcamiento a lo estipulado en el anejo II del mencionado Decreto 68/2000.

4.- Adaptar y completar tanto la documentación gráfica como la memoria del documento técnico conforme a la nueva ordenación, con respecto al cuadro de superficies, plazas de aparcamiento, etc.

Segundo.- Las condiciones señaladas no son sustanciales, por lo que una vez subsanadas se elevará el expediente a la Diputación Foral, elaborando un texto refundido, sin necesidad de someterlo a un nuevo trámite de información pública, con el fin de declarar su ejecutoriedad y proceder a su diligenciación y publicación.

Tercero.- Publicar la presente resolución en el BOTHA.

Cuarto.- Contra la anterior resolución, que pone fin a la vía administrativa, podrá interponerse directamente recurso contencioso-administrativo, en el plazo de dos meses a contar del día siguiente al de la notificación o publicación de la misma, ante la Sala de dicha Jurisdicción del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco.

Vitoria-Gasteiz, 10 de agosto de 2012.– La Diputada de Medio Ambiente y Urbanismo, MARTA RUIZ CERRILLO.

## Iragarkiak

### INGURUMEN ETA HIRIGINTZA SAILA

INGURUMEN ETA HIRIGINTZA ZUZENDARITZA

**4882**

**Arrantza alorreko zehapen espedienteen hasiera eta instruktorearen izena jakinaraztea: 27/2012, 28/2012 eta 29/2012.**

Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/92 Legeak 59.5 eta 61. arti-

## Anuncios

### DEPARTAMENTO DE MEDIO AMBIENTE Y URBANISMO

DIRECCIÓN DE MEDIO AMBIENTE Y URBANISMO

**4882**

**Notificación de inicio y nombramiento de instructor en los siguientes expedientes sancionadores en materia de pesca: 27/2012, 28/2012 y 29/2012.**

De conformidad con lo establecido en los artículos 59.5 y 61 de la Ley 30/92, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Admi-